



Arizaletako elur-zuloaren ibilbidea

Nolako da ibilbidea?

Ibilbide hau Arizaleta herrian hasten da.

Mendi Bidea hartu behar duzu.

Bide honetan

hiru zati desberdin aurkituko dituzu:

1. Bidearen lehen zatia erraza da.
Artadiz inguratutako bidea da.
Hegazti asko ikus ditzakezu,
adibidez kuku arrunta, papialbo eltxogilea,
ikazkin arrunta, txinbo kapirotua eta beste batzuk.

2. Bidearen bigarren zatian
pinudi handi bat aurkituko duzu,
hau da, pinu-baso bat bezalakoa.
Bat-batean bidea oso estua bilakatzen da
eta sastrakadi eta beste zuhaixka batzuk ikus ditzakezu.
Agian pinaburuak lurrean erorita aurkituko dituzu.
Pinudian bizi diren katagorriek uzten dituzte.
Puntu honetan saihesbidetik
San Migel baselizara joan zaitezke.

3. Pinuditik ateratzean
zelai handi batzuk aurki ditzakezu.
Belardi hauetatik
Ubagua ibaiaren arroila ikus dezakezu
eta hegazti asko haren gainetik hegan egiten.
Zelai hauen goiko aldean
Arizaletako Erdi Aroko Elur-zuloa dago.
Elur-zuloa duela gutxi berreraiki da.
Oso zaharra eta handia da
eta elipse itxura du.

Hau Arizaletako elur-zuloa da.



4. Belardiaren ondoren
arte gunetik igarota
Arizaleta herrira itzul gaitezke.

**Zer seinale aurkituko dituzu bide honetan
eta zer esan nahi dute?**



Jarraitu bide honetatik.
Ongi zoaz.



Hau ez da bidea.



Norabide aldaketa.

Zer beharko duzu bide hau egiteko?

Mendiko bota on batzuk
eta nahi baduzu orientatzen laguntzeko
iparrorratz bat eraman dezakezu.
Hau iparrorratza da.



Ibilbideaz gozatzeko eta natura zaintzeko kontuan izan behar dituzun beste gauza garrantzitsu batzuk



- Begiratu zein eguraldi egingo duen ibilbidea egingo duzun egunean.



- Jan eta edan ezazu ongi.



- Babestu zaitez eguzkitik, adibidez, txano batekin eta eguzkitarako kremarekin.



- Ez bota zakarrik lurrera.



- Hesi bateko atea ireki behar baduzu pasa eta gero itxi ezazu.



- Ardiak bezalako aberreetatik gertu pasatzean ezin dituzu zure etxeko animaliak, adibidez txakurra, aske eraman.

- Zaldiz edo bizikletaz doazen pertsonekin elkartzen bazara gogoratu hau:

Lehenengo zaldiz doazen pertsonak pasa behar dira, gero ibilbidea oinez egiten duten pertsonak eta azkenik bizikletaz doazen pertsonak.



Hau da, errespetatu ibilbidean zehar ikusten duzuna eta gozatu bidaiaz.

